



## AP-8 autobidea gauetz itxiko da Astigarraga-Donostia parean, Urumeako zubibidea birgaitzeko lanen barruan

*Asteartean, hilak 13, autobidea itxita egongo da 21:00etatik 05:00etara, eta  
asteazkenean, hilak 14, 19 irteera itxiko da 23:00etatik 04:00etara.*



Joan den urritik Bidegi egiten ari den AP-8ko Urumeako zubibideko zorua birgaitzeko obren barruan, astearte eta asteazken gauean autobideko langileak eta erabiltzaileak babesteko erabili izan diren hormigoizko hesiak kenduko dira. Zorua ere fresatuko da eta obrako seinale horizontalak margotuko dira.

Kentzeko, asteartean, hilak 13, autobidea itxita egongo da Bilborako noranzkoan, 21:00etatik 05:00etara. Alternatiba gisa, trafikoeak Astigarragako goiko biribilguneko 19. irteera erabili beharko dute, eta handik berriro AP-8ra sartu. Iruñerantz A-15 errepidetik eta Gasteizerantz N-I errepidetik doazenek ez dute eraginik izango.

Asteazkenean, hilak 14, Donostiarako 19. irteera eta A-15 errepidearekin lotura egiten duena, 23:00etatik 04:00etara itxiko da. Kasu honetan, A-15 errepidetik Iruñerako noranzkoan doazenei autobidetik jarraitzea gomendatzen zaie Lasarte-Oriako 24. irteeraraino. Helmuga Donostia dutenek 12. irteera erabili beharko dute eta GI-20 errepidetik jarraitu.

Proiektuaren helburua da bidezubiaren hiru errailetako zorua birgaitzea Bilborako noranzkoan. Egungo aglomeratua kentzea eta nahasketa bituminoso batekin ordezkatzea aurreikusten du, zoladura iragazgaitzagoa eta malguagoa lortzeko. Halaber, taula iragazgaitzen ari da, eta zoruaren azpian drainatze-puntu berriak eta ura biltzeko sistema eta hustubideak sartzten ari dira. Era berean, balizak eta euste-sistemak hobetzen ari dira. Bidegik 2.342.000 €+BEZa inbertituko du 6 hilabeteko epean.

Zarautz, 2024-02-12



## Cierre nocturno de la AP-8 a la altura del Astigarraga-Donostia por la rehabilitación del viaducto del Urumea

*El martes 13 la autopista permanecerá cerrada desde las 21:00h hasta las 5:00h y el miércoles 14 se cerrará la salida 19 entre las 23:00h y las 04:00h.*



Dentro de las obras de rehabilitación del firme del viaducto del Urumea de la AP-8 que desde el pasado octubre está ejecutando Bidegi, el martes y el miércoles por la noche se procederá a la retirada de las barreras de hormigón que se han venido utilizando para proteger a los operarios y usuarios de la autopista. También se fresará el firme y se extenderá la señalización horizontal de obra.

Para su retirada, el martes 13 por la noche la autopista estará cerrada en sentido Bilbao desde las 21:00h hasta las 05:00h. Como alternativa los tráfico deberán utilizar la salida 19 de la rotonda elevada de Astigarraga y desde la misma volver a incorporarse a la AP-8. Los que se dirijan hacia Iruña-Pamplona por la A-15 y hacia Vitoria-Gasteiz por la N-I no se verán afectados.

El miércoles 14, la salida 19 hacia Donostia-San Sebastián que también hace de enlace con la A-15 se cerrará entre las 23:00h y las 04:00h. En este caso a los que vayan hacia la A-15 sentido Iruña-Pamplona se les recomienda continuar por la autopista hasta la salida 24 de Lasarte-Oria. Los que tengan como destino Donostia-San Sebastián deberán utilizar la salida 12 y seguir por la GI-20.

El proyecto tiene como objetivo la rehabilitación del firme de los tres carriles del viaducto en sentido Bilbao. Contempla la retirada del actual aglomerado y su sustitución por una mezcla bituminosa para conseguir un pavimento más impermeable y flexible. También se está impermeabilizando el tablero e introduciendo nuevos puntos de drenaje bajo el firme y un sistema de recogida de agua y sumideros de evacuación. Asimismo, se están mejorando el balizamiento y los sistemas de contención En su rehabilitación. Bidegi invertirá 2.342.000 €+IVA con un plazo de ejecución de 6 meses.